


Protokolo egokitua herritarrentzat COVID-19a detektatzeko



Kasu positiboak



- Osasun zentro batean eginiko PCR edo antigenoen test bidezko diagnostia.

• Farmaziako auto-test batekin bada, jakinarazi behar da farmazia-sarearen bidez edo honako posta elektronikoan: antigenosfarmacia@navarra.es

• E-maila positiboaren diagnostia duten pertsonak jasoko dute SMS bidez egiaztapena eta informazio praktikoa, bai eurentzat eta bai hurbileko bere kontaktuentzat.



• Jarraian, bere osasun zentrotik deituko zaie bere eboluzioa jarraitzeko eta laneko baja tramitzeko, ehar izanez gero.



• Itxialdia egingo dute 7 egunez eta bere osasun zentrori deituko dute sintomak okerrera egiten badute edo beste batzuk agertzen badira (sukar iraunkorra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).

• Itxialdia 7 egunen buruan amaituko dute, proba diagnostikorik gabe, sintomarik ez badute eta sintomak desagertu eta gutxienez hiru egun igaro badira. Hala ere, kontuz ibili beharko dira 10. egunera arte.



Zeintzuk dira hurbileko kontaktuak

- Kasu positibo batekin egon diren pertsonak maskararik gabe, 2 metro baino gutxiagoko distantziara, 24 orduren barruan 15 minutu baino epe luzeagoan, bereziki leku itxi eta jendetsuetan.

Zer egin behar dute

- Ageriko sintomak dituztenek (bat-bateko eztula, 38 °-ko sukar iraunkorra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.) **diagnosti proba bat egin behar dute eta, ziurtatzen bada, osasun sistemarekin kontaktuan, kasu positiboentzako jarraibideak aktibatuko dira.**

- Sintomarik ez badute, prozedura ezberdina da:

TXERTATUTA EZ BADAUDE...

Berrogeialdia egin behar dute 7 egunez.

- Epe horretan, sintomen agerraldia zaindu behar dute (sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).
- Ageriko sintomak agertzen badira, kontaktatu osasun sistemarekin diagnosti proba egiteko.
- Laneko baja behar izanez gero, gestiondecontactos@navarra.es helbidean eskatu.



PAUTA OSOAREKIN TXERTATUA...



Ez dute berrogeialdirik egin behar, immunodepresiboak izan ezik.



Eta 10 egunetan zehar...

- Prebentzio neurriak indartu.
- Soilik oinarritzko jarduerak garatu.
- Interakzio soziala murriztu.
- Zaugarriekin kontaktua saihestu.
- Sintomak zaindu. Agertzen badira, kontaktatu osasun sistemarekin.

Ez da beharrezkoa proba diagnostikorik egitea sintomarik agertzen ez bada, baina prebentzioa areagotu behar da.



HURBILEKO KONTAKTUEN GAINEKO ZALANTZETARAKO, IDATZI HONAKO POSTA ELEKTRONIKORA: GESTIONDECONTACTOS@NAVARRA.ES